



**AGINDUA, 2021EKO AZAROAREN 15KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, GARAPENERAKO LANKIDETZARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA ABIARAZTEN DUENA.**

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 13.w) artikuluan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitu zion garapenerako lankidetzaren arloa.

Aurreproiektua egin eta izapidetzeko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean jasotakoari heldu behar zaio.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 4. artikulua lehen apartatuak honako hau xedatzen du: «Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da».

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak du eskumena arlo horretan, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuan esleitutako eskumenen arabera.

Garapenerako Lankidetzari buruzko Legearen aurreproiektuaren xedea izango da EAEko administrazio publikoek eta lankidetzaren arloko eragileek garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren arloko jarduketetan jarraitu behar dituzten printzipio orokorrak ezartzea.

Egungo lege-aurreproiektuaren zentzua ulertzeko eta justifikatzeko, ezinbestean aipatu behar da Eusko Legebiltzarrak Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartu zuela 2007an. Lege horrek eztabaida handia eragin zuen, baina lege-babesa eman dio 30 urtez EAEn justiziaren eta herrialde pobretuen garapeneraren alde izandako elkartasunari eta lankidetzari.

2021ean, ordea, EAEn, lankidetzak 2007ko ez oso bestelako erronkak ditu; erronka horiek nazioarteko testuinguruan eta garapenerako nazioarteko agendan gertatutako aldaketa sakonekin dute zerikusia. Egungo arau-esparruaren gabeziez jabetuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planak egungo legearen ahalmenak eta mugak aztertzea eta lege berri baten bidez hobetzeari buruz hausnartzea aurreikusten zuen.

Hauk dira Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legean identifikatutako gabezia nagusietako batzuk:

Lankidetzari buruzko 1/2007 Legea ez da egokitzen egungo erronka globalerara, eta ikuspegi mugatukoa da lankidetzaren arloan jarduteko funtsezko mekanismoetan, hala nola garapenerako politiken koherentzian, etengabeko ebaluazioan eta ikaskuntzan, gardentasunean eta kontuak ematean, batzuk aipatzearen.



1/2007 Legearen orientazioari dagokionez, egungo araudiak ez du jasotzen lankidetzaren deszentralizatuaren potentziala; hots, gizarteko aktiboak identifikatzea, garapenerako nazioarteko agendaren zerbitzura ipintzearen.

Egungo araudiak eskari-eredu bat sustatzen du, batez ere gizarte-erakundearen finantzaketan oinarritzen dena eta administrazioen eta gizartearen lankidetzaren espezializatuta ez dauden beste eragile batzuen parte-hartze aktiboa mugatzen duena.

Hala ere, garapenerako nazioarteko agendaren erronka globalei aurre egiteko, beharrezkoa da lankidetzaren gaineko ikuspegia zabaltzea. Pobreziaren aurkako eta justizia sozialaren eta jasangarritasunaren aldeko borrokarekin konprometuz gero, funtsak kontualdatzera mugatzen ez den ikuspegi bat behar da. Elkarrekintza iraunkorra behar da, bai eta lankidetzaren eta laguntza-prozesuak ere, eta horiek finantzaketa behar dute, baina baita esperientziak trukitzea eta batak bestearengandik ikastea ere.

Ondorioz, ikuspegi berri horrek eskatzen du, alde batetik, lankidetzaren arloko eragile gehiagotara zabaltzea (bereziki garrantzitsua da erakunde publikoek bere jardutea), lankidetzaren modalitateak eta -tresnak egokitzea eta lankidetzaren antolaketa berri bat sendotzea EAEn.

Laburbilduz, autonomia-erkidegoak ibilbide sendo eta luzea du lankidetzaren arloan. EAEn lankidetzaren politikak ez du izan nahi estatuko lankidetzaren politika eskala txikian, ezta eragile espezializatuen garapen-jardueren finantzatzaile hutsa ere. Lankidetzari buruzko lege-aurreproiektuak ahalegin horretan sakondu nahi du, kalitatezko politika publikoa hedatzeko behar diren baldintzak finkatuz, nazioarteko garapen-agenda –2030 Agenda eta gerokoak– bere aktibo onenekin bere gain har dezan, hau da, EAEn potentzialtasunak lankidetzaren eta giza garapen jasangarriaren zerbitzura jarritz.

Garapenerako Lankidetzari buruzko Legearen aurreproiektuak udal-eremuan ezarritako eskumen-konfigurazioa errespetatuko du; izan ere, Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1 artikularen 37. zenbakian, udalerrien berezko eskumen gisa ezartzen du garapenerako lankidetzaren arloko politikak planifikatu, antolatu eta kudeatzea.

Halaber, Autonomia Erkidegoko Erakundeek eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1 artikulua xedatzen du EAEn erakunde erkideen eskumena dela Autonomia Estatutuaren arabera erkidegoari berari dagozkion gai guztiei buruzko legeak egitea edo lege horiek betearaztea, non eta gai horiek estatutu horretan, aipatutako legean edo ondorengo lege batzuetan ez zaizkien lurralde historikoetako foru-organoei aitortzen edo esleitzen. Arau hori hitzez hitz irakurriz gero, ondoriozta liteke lurralde historikoek ez luketela eskumenik izango lankidetzaren arloan. Dena den, autonomia-erkidegoaren eskumenarekin berarekin gertatzen den bezala, autonomia-erkidegoek beren barne-eskumenak kanpora proiektu ditzakete.

### **Arauren xedea eta helburua.**

Xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan garapenerako lankidetzaren politika garatzeko arau- eta eskumen-esparrua ezartzea.

Garapenerako lankidetzaren EAEn politika publikoaren helburuak hauek dira:

- a) Giza garapen jasangarrirako nazioarteko agendan eta hegoaldeko populazio eta komunitateen pobretze, bazterketa, bidegabekeria eta kalteberatasunaren egiturazko kausen aldaketan laguntzea.
- b) EAEko elkartasun-bitartekoen mobilizazio-oinarria zabaltzea: herritartasun kritiko eta aktiboa; sektore askotarikoa eta dinamikoa; ibilbide eta esperientzia aitortua duten GKE espezializatuak; inplikaturako eragile sozial eta instituzional gehiago eta administrazio konprometitu eta aktiboak sustatuz.
- c) Giza garapen jasangarri inklusiboaren aldeko EAEko eragileen arteko koherentzia eta haien erantzukidetasuna hobetuko dituen erakunde-arkitektura berri bat sendotzen aurrera egitea.
- d) Garapenerako politiken koherentzia ezaugarri duen garapen-eredu bat finkatzea, lankidetzeta-politika EAEko administrazioetatik bertatik eta haien barnean hedatzea ahalbidetuko duena.

### **Proposatutako arauketaren edukia.**

Lege-aurreproiektuak honako alderdi hauek arautuko ditu:

Zioen azalpen bat, garapenerako lankidetzaren EAEko politika publikoaren doktrina-oinarria jasoko duena. Besteak beste, EAEko politikaren alderdi hauek nabarmenduko dira: i) erronka globalei erantzutea; ii) garapenerako nazioarteko agenda (Agenda 2030 eta ondorengoak); iii) lankidetzeta-eredu deszentralizatua eta lurraldeetako aktiboak mobilizatzea harreman horizontalen eta baterako ikaskuntzaren bidez; iv) irabazi-asmorik gabeko izaera, gizarte-eragileengandik hurbilekoa, hegoaldeko erakundeekin lan egiten ohitua, aldaketa-prozesu endogenoak eraikiz eta harremanetan horizontaltasuna bilatuz, etab.

EAEko lankidetzari buruzko atal bat. Bertan, legearen xedea eta aplikazio-eremua, eta EAEko lankidetzeta-politikaren printzipioak eta helburuak zehaztuko dira.

EAEko lankidetzaren antolaketari buruzko beste atal bat, EAEko lankidetzako eragileak aipatuz eta Eusko Legebiltzarrari, Eusko Jaurlaritzari eta lurralde historikoetako administrazio publikoei eta EAEko udalerriei dagozkien ahalmenak zehaztuz. Atal horretan, koordinazio-organoak ere zehaztuko dira.

Atal batean edo gehiagotan modu koherentean definituko dira lehentasun estrategikoak planifikatzeko eta definitzeko mekanismoak, jarduteko modalitateak eta tipologiak, bai eta parte hartzeko, komunikatzeko, gardentasunerako, kontuak emateko, ebaluazioa egiteko eta ezagutza eta ikaskuntza kudeatzeko mekanismoak ere.

Aipamen berezia merezi du garapen jasangarrirako politiken koherentziak, ikuspegi horrek lege-aurreproiektuan duen garrantziagatik.

Era berean, EAEko lankidetzeta-politika gauzatzeko baliabideak eta gaitasunak zehaztuko dira. Atal horretan, alde batetik, finantzaketa-aurreikuspenak eta dirulaguntzen araubidea definituko dira, eta bestetik, pertsonen buruzko gaiak (lankide profesionalak, boluntarioak eta sektore publikoko administrazioetako langileak).

Azkenik, xedapen gehigarri, iragankor, indargabetzaile eta azken xedapenak arautuko dira:

### **Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ez du berariaz xedatzen Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiola garapenerako lankidetzaren arloko eskumena. Hala ere, garapenerako lankidetzari buruzko berariazko aipamenik ez egotea ez da eragozpen Euskal Autonomia Erkidegoak jarduerak egin ahal izan ditzan arlo horretan, bere eskumenak kanpo-ekintzan proiektatuz.

Izan ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko uztailaren 7ko 23/1998 Legearen 20. artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek garapenerako lankidetzari buruzko jarduerak egin ditzaketela, eta aitortzen du aurrekontu-autonomia eta autoerantzukizuna dutela garapenerako lankidetzaren «garapenean eta exekuzioan».

Udal-eremuari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 17.37 artikuluan ezartzen du garapenerako lankidetzako politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea udalerrien eskumen propioa dela.

Bestalde, lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuko 13.1.w) artikulua ezartzen duenez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagokio garapenerako lankidetzaren jarduerak arloa (dekretu horren bidez, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatu ziren, eta bakoitzaren funtzioak eta jardun-eremuak zehaztu ziren).

### **Eragina ordenamendu juridikoan.**

Otsailaren 22ko 1/2007 Legea, Garapenerako Lankidetzaren onartzen duena indargabetuko da (2007ko martxoaren 8ko EHAA, 48. zk.).

Honako arau hauek indarrean jarraituko dute, baldin eta etorkizuneko legean xedatzen denari kontra egiten ez badiote eta geroko xedapenen bidez aldatzen ez badira:

- 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duena.
- 95/2010 Dekretua, martxoaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolamendua eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena (2010eko apirilaren 9ko EHAA, 65. zk.).
- 310/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren baliabide pertsonalak eta materialak Agentzia horri atxikitzeko baldintzak arautzen dituena (2010eko abenduaren 10eko EHAA, 236. zk.).
- 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena (2020ko irailaren 7ko EHAA, 176. zk.).

- 12/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk.).
- 158/2008 Dekretua, irailaren 16koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzkoa (2008ko urriaren 2ko EHAA, 188. zk.).
- 197/2014 Dekretua, urriaren 21ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren Dekretua aldatzen duena (2014ko urriaren 27ko EHAA, 204. zk.).
- 71/2009 Dekretua, martxoaren 24koa, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordearena (2009ko apirilaren 2ko EHAA, 64. zk.).
- Lankidetzaz arloko laguntzak arautzen dituzten dekretuak.

### **Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.**

Behar den memoria ekonomikoa egingo da, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Egin asmo dagoen araua aplikatetik eratorritako kostua aztertuko da memoria horretan, baita araua aplikatzeak EAEko aurrekontu orokorretan izan lezakeen eragina ere. Halaber, arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan izan dezakeen eragina aztertuko da, baita ekonomian, oro har, izan dezakeena ere.

### **Izapide eta txosten egokiak.**

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera, hasierako aginduan adieraziko zein diren izapide eta txosten egokiak, arautuko den gaia zein den kontuan hartuta.

Aipatutako memoria ekonomikoaz gain, espedientean honako hauek jaso beharko dira:

- i) Arauaren beharrari, egokitasunari eta helburuei buruzko justifikazio-memoria;
- ii) Generoaren arabera inpaktuari buruzko txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren Lehen Gidalerroaren 2.1) atalean xedatutakoaren arabera. Horren bitartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, «*generoaren arabera inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa*».
- iii) Enpresan izango duen inpaktuari buruzko ebaluazioa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarrita dagoen moduan.
- iv) Egin asmo dagoen arauak hurrengan eta nerabeengan izan dezakeen inpaktuari buruzko analisi-memoria, Adingabearen gaineko Babes Juridikoari buruzko eta Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilaren Legearen zati batzuk ere aldatzeko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartutako erabakian onartu ziren xedapen orokorrak egiteko prozeduraren jarraibideak. Horien arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.

artikuluaren xedatutako estaldura (herritarrek parte hartzea lege-lerruneko arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran) Xedapen Orokorrek egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluetan araututa dagoela ulertuko da, lege-testu arautzaile oro onartu aurretik egin beharreko izapidea baita herritarren parte-hartzearena.

Izapidea betetzeko, iragarki bat ipiniko da EAEko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-oholean. Legegunean ere ikusgai egongo da informazio hori bera. Jasotako ekarpenak banaka edo multzoka txertatuko dira informazio horretan. Gainera, aurretiazko kontsulta-izapide horretan argitara eman zen informazioa gobernu irekiko plataformara kargatuko da (Ireki), herritarrek administrazioaren jarduna ezagutu eta horretaz duten iritzia eman ahal izateko.

Lege-aurreproiektua aurretiaz onartu ondotik, testua Eusko Legebiltzarrerara igorri beharko da, Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua aplikatuta – 7/1981 Legea aldatu zuen ekainaren 2ko 8/2016 Legean emandako idazketaren arabera–.

Aldez aurreko onarpenaren agindua, eta, harekin batera, araugintza-aurreproiektua, Legesarea lankidetzaren esparruan emango dira argitara (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren 1.2 apartatuta).

Aurreproiektua entzunaldi izapidearen eta jendaurreko informazioaren pean jarriko da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, testua beste administrazio batzuen parte-hartzearen eta kontsultaren mende jarriko da, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Txosten hauek jaso beharko dira:

- Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzuen Zuzendaritzaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, arauak izango duen genero-eraginaren ebaluazioari buruz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren Administrazio Publikoetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala xedatzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2.l) artikuluan eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedatzen direnen arabera.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.a) artikuluan eta urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenaren, 18. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.



- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzaren Herritarrekiko Arreta eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren txostena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua arautzen duen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 2.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Halaber, egoki eta bidezkoa irizten zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena eskatzeari, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean izendatzen zaizkion eskumenei jarraikiz.
- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 91.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren indarrez.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arau- eta ekonomia-kontrolleko txostena, bi arau hauetan ezarritakoari jarraikiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategineko III. Tituluko IV. Kapituluak (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita nola egin barruko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea EAEn.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeko 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan, eta, Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua xedatutakoa betez, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera, «*Aholku Batzorde Juridikora bidaliko den dokumentazio bera, aldi berean, Legebiltzarrerara bidaliko da, Legebiltzarreko taldeek horren berri izan dezaten*».

### **Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin beharrik.

### **Idazketa-sistema.**

Aurreproiektua idaztea, lege-, legegintzako dekretu-, dekretu- edo agindu-mailako xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartuaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiaren arabera.

Aurrekoa betetzeko, baita 10/1982 Oinarrizko Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen Erabilera Arautzekoak, 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko ere, IZO-ltzultzaile Zerbitzu Ofizialak itzuliko du testua, 48/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, Euskal

Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematen duenak, ebazten duenari men eginez.

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa:** Garapenerako Lankidetzari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

**Bigarrena:** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izendatzea lehen aipatutako prozedura izapidetzeko **arduradun**.

**Hirugarrena:** Legesarea izeneko lankidetzaren Agindu honen berri ematea, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betetzeko.

**Laugarrena:** Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

**Bosgarrena:** Xedapen orokorrak izapidetzeko eredu eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluaren bi erabaki hauekin bat etorriz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituenak, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren prozedura jakin batzuk elektronikoki izapidetzeko jarraibideak onartzen dituenak.

**Seigarrena:** Prozedura izapidetu ahala sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia eraginkortasunez argitaratzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 15ean

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,  
**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**